

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3805

697/2018 EBAZPENA, uztailaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Jose Antonio Gonzalez Gutierrez jauna Santa Marina Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatzen baita.

Aztertua izan da Santa Marina Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren maiatzaren 14ko 534/2018 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2018ko ekainaren 12ko EHAA (112. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agirien arabera, ikusi da José Antonio González Gutiérrez jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela.

Hori guztia dela eta, Zuzendaritza Nagusiak hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– José Antonio González Gutiérrez jauna Santa Marina Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2018ko uztailaren 16tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.